

**ZUMAIAN EUSKARAREN
ERABILERA INDARTZEKO PLAN
ESTRATEGIKOA**

AURKIBIDEA

1- Diagnostikoa:

- 1.1- Sarrera
- 1.2- Oinarrizko datuak
 - 1.2.1- Biztanleriaren egitura adinaren arabera
 - 1.2.2- Biztanleria jatorriaren arabera
 - 1.2.3- Hizkuntza gaitasuna
 - 1.2.4.- Hizkuntza gaitasuna adinaren arabera
- 1.3- Euskara Ondorengoetaratzea
 - 1.3.1- Irakaskuntza
 - 1.3.1.1- Datuak eta diagnostikoa
 - 1.3.2- Euskalduntze-alfabetatzea
 - 1.3.2.1- Datuak eta diagnostikoa
 - 1.3.3- Familia bidezko jarraipena
 - 1.3.3.1- Datuak eta diagnostikoa
- 1.4- Euskararen erabilera:
 - 1.4.1- Administrazioa
 - 1.4.1.1- Datuak eta diagnostikoa
 - 1.4.2.- Teknologia berriak
 - 1.4.2.1.- Datuak eta diagnostikoa
 - 1.4.3.- Enpresa mundua:
 - 1.4.3.1.- Datuak eta diagnostikoa
 - 1.4.4.- Aisia:
 - 1.4.4.1.- Datuak eta diagnostikoa
 - 1.4.5.- Kirola
 - 1.4.5.1.- Datuak eta diagnostikoa
 - 1.4.6.- Erlijioa
 - 1.4.6.1.- Datuak eta diagnostikoa
- 1.5.- Euskararen kalitatea
 - 1.5.1.- Corpus-plangintza
 - 1.5.1.1.- Datuak eta diagnostikoa
 - 1.5.2.- Komunikabideak
 - 1.5.2.1.- Datuak eta diagnostikoa
 - 1.5.3.- Kulturgintza
 - 1.5.3.1.- Datuak eta diagnostikoa
 - 1.5.4.- Liburugintza
 - 1.5.4.1.- Datuak eta diagnostikoa
 - 1.5.5.- Publizitatea
 - 1.5.5.1.- Datuak eta diagnostikoa

2.- Plan Estrategikoa

- 2.1.- Sarrera
- 2.2.- Ezaugarri nagusiak
- 2.3.- Euskararen ondorengoetaratzea;

- 2.3.1.- Irakaskuntza; neurriak, ekintzak
- 2.3.2.- Euskalduntze-alfabetatzea; neurriak, ekintzak
- 2.3.3.- Familia; neurriak, ekintzak
- 2.4.- Euskararen erabilera;
 - 2.4.1.- Administrazioa; neurriak, ekintzak
 - 2.4.2.- Teknologia berriak; neurriak, ekintzak
 - 2.4.3.- Enpresa mundua; neurriak, ekintzak
 - 2.4.4.- Aisia; neurriak, ekintzak
 - 2.4.5.- Kirola; neurriak, ekintzak
 - 2.4.6.- Erlijioa
- 2.5.- Euskararen elikadura
 - 2.5.1.- Corpus plangintza; neurriak, ekintzak
 - 2.5.2.- Liburugintza; neurriak, ekintzak
 - 2.5.3.- Publizitatea; neurriak, ekintzak
 - 2.5.4.- Kulturgintza; neurriak, ekintzak
 - 2.5.5.- Hedabideak; neurriak, ekintzak
- 2.6.- Baliabideak
 - 2.6.1.- Diru baliabideak
 - 2.6.2.- Giza baliabideak
- 3.- Kudeaketa Plana 2005
 - 3.1.- Sarrera:
 - 3.2.- Euskara ondorengoetaratzea
 - 3.2.1.- Irakaskuntza
 - 3.2.2.- Euskalduntze-alfabetatzea
 - 3.2.3.- Familia
 - 3.3.- Euskararen erabilera
 - 3.3.1.- Administrazioa
 - 3.3.2.- Teknologia berriak
 - 3.3.3.- Enpresa mundua
 - 3.3.4.- Aisia
 - 3.3.5.- Kirola
 - 3.4.- Euskararen elikadura;
 - 3.4.1.- Corpus plangintza
 - 3.4.2.- Liburugintza
 - 3.4.3.- Publizitatea
 - 3.4.4.- Kulturgintza
 - 3.4.5.- Hedabideak

DIAGNOSTIKOA

1.- SARRERA:

Eusko Legebiltzarrak 1999ko abenduaren 10ean onartu zuen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN). EBPNren helburu nagusiak hauek dira:

- Euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea.
- Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.

Geroztik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS), Plan Nagusi hori oinarri hartuta hamar eredu prestatu ditu udaletarako, herri bakoitzaren neurria eta euskaldun kopurua kontuan izanda.

Zumaiako Udalak 2003an erabaki zuen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia Zumaian aplikatzea. Hala ere, besteak beste, euskara teknikariaren kontratazioan izandako luzapenak atzeratu egin zuen prozesu osoa.


Dena dela, zenbait lan aurreratuta daude, esaterako, SIADECO enpresak Zumaiako azterketa soziolinguistikoa egin du bai eta bideragarritasun txostena ere.

Hemen aurkezten den Plan Estrategikoak datozen lau urteetan, hau da 2005-2008 urte bitartean, Zumaiako Udalak euskararen alorrean egin asmo duen guztia jasotzen du.

Baina datozen lau urteetan zer egin behar den erabaki eta jasotzeko, aurretik dagoen egoera, hau da, abiapuntua zein den zehaztu behar da, eta horretarako diagnostia egin behar da. Diagnostian orain arteko datuak bildu dira.

OINARRIZKO DATUAK

Biztanle-kopurua: 8.705
Eskualdea: Urola-Kostaldea
Lurraldea: Gipuzkoa



2003ko erroldaren arabera, Zumaian 8.705 lagun bizi dira. Urola-Kostaldeko eskualdean kokatuta dago. Urola-Kostaldea 11 udalerrik osatzen dute. Zarautz da biztanle gehien duen herria (19.202, eskualdeko biztanleen %30). Hiru udalerrik dute 10.000 biztanle baino gehiago: Azkoitia, Azpeitia eta Zarautz. Hiru udalerrri hauetan bizi dira eskualdeko bi heren (%66,97). Zumaian eskualdeko biztanleriaren %12,9 bizi da. 1981. urtetik 1996. urtera biztanleriaren hazkundera %5,6 izan da Zumaian, eskualdean baino zerbait handiagoa (eskualean %4,5 izan da hazkundera).

Biztanleriaren egitura, adinaren arabera

ZUMAIA	Guztira	Biztanleen dentsitatea	0-19 urte		20-64 urte		≥65 urte	
			Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
Gipuzkoa	676.208	341,5	139.147	20,58	432.626	63,98	104.435	15,44
Urola-Kostaldea	64.173	196,1	14.835	23,12	40.049	62,41	9.289	14,47
Zumaia	8705	756,96	1.478	65,13	5.670	65,13	1.287	14,78


Biztanleria, jatorriaren arabera

ZUMAIA	Guztira	Sedentarioak	Barne- migratzailea k	Etorkinak
Gipuzkoa	676.208	%52,29	%27,16	%20,55
Urola-Kostaldea	64.173	%59,62	%29,17	%11,21
Zumaia	8.280	%55,74	%28,06	%16,21

Hizkuntza-gaitasuna

Zumaiako hamar lagunetik zazpi euskaldunak dira (%73,1). Erdaldun elebakarrak, hau da, euskaraz batere ez ulertu eta hitz egiten ez dutenak, biztanleriaren %18,5 dira. Elebidun hartzaileak, hots, euskaraz ondo hitz egin ez arren ondo ulertzeko gaitasuna dutenak, %8,4 dira. 1981etik 1996ra izan den bilakaera kontuan hartuz gero, euskaldunen portzentajea 12,9 puntu igo da. Erdaldun elebakarren portzentajeak behera egin du; kasu honetan 9,5 puntu jaitsi da. Elebidun hartzaileek ere behera egin dute 3,4 puntu jaitsita.


Hizkuntza-gaitasuna (ZUMAIA)
Competencia lingüística (ZUMAIA)



Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera

Euskaldunen proportzioa nagusi da adin guztietan. 19 urtetik beherako adin-tarteetan ia ez dago erdaldun elebakarrik. Euskaldunen portzentaje txikiak helduenen artean ematen da.

Hizkuntza-gaitasuna 1996, adinaren arabera (ZUMAIA)
Competencia lingüística 1996, según la edad (ZUMAIA)



1.3.- EUSKARA ONDORENGOETARATZEA:

1.3.1.- Irakaskuntza:

Zumaian lau ikastetxe daude, hiru publiko eta pribatu bakarra. Ikasle gehienek, bi herenek gutxi gorabehera, ikastetxe publikoak aukeratzen dituzte. Bestalde, lau ikastetxeetan D ereduak bakarrik eskaintzen da azkeneko urteetan.

Indarguneak:

- Zumaiako ikastetxeak Ulibarri programan sartuta daude.
- Badira 10 urte Eskola Kontseiluan biltzen direla udala eta ikastetxeak, beraz, harreman estua eta emankorra da, horren bidez hainbat eta hainbat programa eta ekintza eraginkor bideratzen dira.
- Zumaian D ereduak bakarrik dago.

Ahuleziak:

- Etorkinen seme-alabak gero eta ugariagoak dira eta ez da erraza horien hizkuntzazko integrazioa.
- Idatzizko eta batez ere ahozko hizkuntzaren higadura nabari da ikasleen artean.
- Gurasoen inplikazioa lortzen zaila izaten da, batzuetan ekintzak antolatu arren, erantzun eskasa egoten da.

1.3.2.- Euskalduntze-alfabetatzea.

Zumaian euskaltegi bakarra dago, Zumaiako AEK euskaltegi librea. 2003-2004 ikasturtean, 31 ikasle izan dituzte baina kopuruak aldaketak izaten ditu ikasturte batetik bestera, eta ezin da esan goranzko edo beheranzko joera garbirik dagoenik ikasle kopuruari dagokionez.

Indarguneak:

- Zumaiarren artean dagoen interesa euskara ikasi edo eta euskaraz alfabetatzeko.
- Azken urteotan zenbait ahalegin egin dira giza-talde jakinekin. Esate baterako, seme-alabak eskola garaian dituzten gurasoei zuzenduriko ikastaroak eskaini dira.
- Udaletxeak diru laguntzak ematen ditu baldintza minimo batzuek betetzen dituztenentzat eta ikasle gehienek baliatzen dituzte laguntza horiek.

Ahuleziak:

- Zumaian heldu euskaldun gehienak alfabetatu gabeak dira.
- Ikas-prozesua hasten duten askok bertan behera uzten dute eta ez dute amaitzen.
- Udalarekin harreman gutxi dago eta ez dago sistematizatuta.
- Kasu askotan zaila izaten da maila bereko interesa eta beharra dutenak bildu eta taldeak sortzea.

1.3.3.- Familia bidezko jarraipena.

Zumaian multzorik handiena euskaldun zaharrena da, %60 inguru euskaldun zaharrak dira, horiek etxean jaso dute euskara eta gorde egiten dute. Euskaldun zaharren ostean, erdaldun zaharren multzoa da handiena. Euskaldun berrien portzentajea ere adierazgarria da % 10 ingurukoa. Gazteen artean, 10 lagunetik ia hiru euskaldun berriak dira.

Indarguneak.

- Familia euskaldunetan transmisioa naturala eta erabatekoa da.
- Biztanleen bi herenek euskara dute ama hizkuntza.
- Guraso mistoek ere gehienetan euskara transmititu dute.

Ahuleziak:

- Kasu batzuetan, ama hizkuntza euskara izan dutenen artean galera prozesuak gertatu dira, adin batetik aurrerakoetan, batez ere.
- Gero eta etorkin gehiago dago eta familia horietan euskararen transmisio kulturala bera ere oso zaila gertatzen da.
- Bikotekideen arteko harremanak seme-alabekikoak baino erdaldunagoak dira.

1.4.- EUSKARAREN ERABILERA:

1.4.1.- Administrazioa.

Udalbatza alkateak eta 12 zinegotzik osatzen dute. Maria Eugenia Arrizabalaga da alkatea EAJ alderdikoa. EAJk 5 zinegotzi ditu, IZUSTARRIA herri plataformak 3, EAK 2, PSOEk 2, Ezker Batuak 1.

Euskara zerbitzua Udal Euskara Batzordearen barruan dago kokatuta eta euskara teknikari batek osatzen du.

Udalaren erabilera planari dagokionez, udalaren derrigortasun indizea %79,41ekoa da, beraz, 4. helburu mailakatu dagokio. Postu kopurua 46koa da, horietatik 36k derrigortasun data jarria dute. Horietatik 24k egiaztatu dute. Hizkuntza Eskakizunen egiaztatze maila %52,17koa da.

Indarguneak:

- Zumaiaiko udaleko langileen %94 euskaraz ondo moldatzen da.
- Zumaiaiko udaleko langileek euskararekiko eta erabilera planarekiko aldeko jarrera dute.
- Zenbait administrazio ataletan, kulturen esaterako... euskara da zerbitzu eta lan hizkuntza nagusia.

Ahuleziak.

- Hizkuntza Eskakizunen egiaztatze maila baxua da.
- Euskaraz ondo moldatu arren zenbait langilek gaztelera erabiltzeko joera du.
- Zenbait administrazio atal, hirigintza adibidez, erabat erdaldunak dira.

1.4.2.- Teknologia berriak:

Udalak bere web gunea du, eta oso epe laburrean, hainbat zerbitzu jarriko ditu on-line herritarrentzat. Horretaz gain KZ guneak ere funtzionatzen du.

Indarguneak:

- Udalak bere web gune ofiziala berritu du eta oso-osorik elebitan dagoen arren, euskarari lehentasuna ematen zaio.
- KZ guneak arrakasta handia du eta herritar askok erabiltzen du.
- 2004-2005 ikasturtean on-line euskaltegia jarriko da martxan udalaren laguntzaz.

Ahuleziak:

- Udaleko langileek erabiltzen dituzten informatikako programa guztiak (testu prozesadoreak...) gaztelera daude.
- Udaleko langileek ez dute euskara lantzeko web orrien berri, hiztegiak erabiltzeko...
- Zumaiako zenbait enpresa garrantzitsuk euren web orriak gaztelera hutsean dituzte.

1.4.3.- Enpresa mundua:

Zumaiarren erdiak industrian lan egiten du. Bigarrena zerbitzuen sektorea da, 10etik ia 4k egiten du lan sektore horretan, hirugarrena eraikuntza eta azkena nekazaritza eta arrantza. Beraz, industriak duen garrantzia nabarmena da Zumaian.

Indarguneak:

- Udal Elkartearen bidez, eta Elhuyar aholkularitzarekin elkarlanean enpresa-mundua euskalduntzeko plana martxan dago.
- Zumaiako merkatarien artean altua da euskaldunen portzentajea.

Ahuleziak:

- Zumaiarrentzat lan mundua da eremurik erdaldunena.
- Zumaian ez dago enpresarik euskara plana martxan duenik.
- Orain arte ezer gutxi egin da merkataritza euskalduntzeko eta hizkuntza paisaia bera ere erdalduna da hein handi batean.

1.4.4.- Aisia:

Zumaian hainbat aisialdi talde dago: Arte taldea, Natur taldea, Bertso elkarteak.....

Indarguneak:

- Zumaian dauden alor ezberdinetako aisialdi taldeek orokorrean euskara erabiltzen dute nagusiki.
- Udalak haurrentzat antolatzen dituen aisialdiko ekintza guztiak euskaraz antolatzen ditu.

- Udaleku irekietan haurren kopuruak gora egin du azken urte hauetan.

Ahuleziak:

- Zumaian ez dago gazteekin lan egiten duen aisialdi talde finkorik.
- Udalak ez dauka herriko taldeekin harreman jarraitik.
- Gazteek askotan gaztelerara jotzen dute euren aisialdian (musika, zinea...) gazteleraz dira gehien bat.

1.4.5.- Kirola.

Zumaian hainbat kirol talde daude; arraun elkarteak, pilota elkarteak...

Indarguneak:

- Badira urte batzuk kiroleko begiraleentzat ikastaroak antolatzen direla, euskaraz lan egin dezaten.
- Udal Elkartearen laguntzaz euskara planak martxan daude hainbat kirol elkartetan eta maila ezberdinetako konpromisoak hartu dituzte askok.
- Kirol taldetan dabilzan gehienak gazteak direnez, euskararen ezagutza neurri handian ziurtatuta dago eremu horretan.

Ahuleziak:

- Zenbait kirol elkartetan oraindik gazteleraren erabilera da nagusi.
- Kirol Elkartearen barne funtzionamenduan oraindik ere leku handia du gaztelerak bai eta idatzizko erabilera ere.
- Askotan zailtasunak izaten dira, kirol elkarteek behar dituzten material eta gainerako baliabideak euskaraz eskura izateko.
- Begirale eta abarren lana, kasu gehienetan borondatezkoa denez, zaila izaten da hizkuntza irizpideak ezartzea.

1.4.6.- Erljioa.

Indarguneak:

- Gaur egun katekesira eta sendotzara joaten diren haur eta gazte ia guztiak euskaldunak dira.

Ahuleziak:

- Gero eta zailtasun handiagoak daude euskara dakiten katekista eta begiraleak aurkitzeko.

1.5.- EUSKARAREN ELIKADURA

1.5.1.- Euskararen kalitatea; corpus plangintza

Zumaiarren artean handia da euskaraz jakin eta egiteko interesa. Eta halaber, nahikoa interes dago hizkuntzaren kalitatea hobetzeko ere.

Indarguneak:

- Udalaren laguntzaz herriko toponimia jaso eta biltzeko lana dago martxan .
- Hizkuntza paisaia gehien-gehiena euskaraz eta txukun jarrita dago.
- Zumaiako hitanoa aztertuta dago eta liburu batean argitaratua.

Ahuleziak.

- Herriko euskalkia jaso eta azter dadin udalak egindako ahalegina bertan behera gelditu da.
- Ahozko euskararen kalitatean eta aberastasunean dagoen galera, batez ere gazteen artean.

1.5.2.- Komunikabideak:

Zumaian gero eta aukera handiagoa dago euskarazko hedabideetan.

Indarguneak:

- "Baleike" herri aldizkaria hilerok ateratzen da euskara hutsean.
- Udalaren bi hilabetekariak ere euskararen presentzia handia izaten du, gutxienez %80 euskara hutsean izaten baita.
- Hitza eskualdeko egunkaria Zumaiako hainbat etxetara iristen da egunero.

Ahuleziak:

- Diario Vasco egunkariaren herriko kronikan gaztelera da nagusi.
- Ez dago gazteentzako berriazko eskaintzarik euskarazko hedabideetan.

1.5.3.- Liburugintza:**Indarguneak:**

- Herrian bi literatur lehiaketa antolatzen dira, bat haur eta gazteentzat eta bestea helduentzat.
- Herriko liburutegia nahiko ondo hornitua dago euskarazko liburuz.
- Udalak irakur zaletasuna bultzatzeko hainbat ekimen sustatzen ditu urtero.

Ahuleziak:

- Umeengan irakur zaletasuna bultzatzeko ekintzak egiten diren arren, gai hori bera gurasoekin landu nahi denean zailtasunak izaten dira.
- Euskarazko eskaintza murriztagoa da gaztelerezkoa baino, eta zenbait alorretan ez dago ezer euskaraz, gai zehatzei buruzko aldizkariak....

1.5.4.- Publizitatea:**Indarguneak:**

- Herria oso euskalduna da eta horrek euskarazko publizitatearentzat aukera handiak ematen ditu.
- Herri aldizkariari eta eskualdeko egunkariari esker, euskarazko iragarkiak gehituz doaz.

Ahuleziak:

- Herriko merkatari eta enpresek ez dute ohitura handiegirik euren iragarkiak euskaraz egiteko, horretan hasita dauden arren.
- Euskarazko publizitatearen abantailen kontzientzia falta.

16.- ONDORIOAK

Orain arte ikusitakoaren arabera, Zumaian esparru batzuk hobeto garatuta daude beste batzuk baino. Esan liteke euskararen ondorengoetaratzea ongien bermatzen den helburu estrategikoa dela, izan ere, irakaskuntzaren esparruan, esate baterako, urteak dira hainbat programa eta ekintza garatzen direla, horien gaineko ebaluazioak egin izan dira eta esan liteke nahikoa positiboak eta eraginkorrak direla oro har. Txanponaren beste aldea, ordea, euskararen erabileran aurkitzen dugu. Izan ere, enpresa munduaren esparruan merkataritza eta ostalaritza, hain zuzen ere, hutsune nabarmenak daude, orain arte, ekintza eta programa puntualak garatu diren arren, ezin esan liteke ganorazko merkataritza planik egin denik eta eremu hori landu ez izanaren erakusgarri da gaur egun Zumaiak merkataritzak eta ostalaritzak euskarari dagokionean erakusten duen jarrera eta egoera, nolabait esatearren, epela.

2.- ZUMAIAKO PLAN ESTRATEGIKOA 2005-2008

2.1.- SARRERA:

Zumaiako Udaleko Gobernu Batzordeak 2002ko ekainaren 27an erabaki zuen Eusko Jaurlaritzako Euskara Biziberritzeko Planean sartzea eta aurrerantzean gai horren inguruan elkarlanean aritzea.

Geroztik, hainbat zailtasun tarteko, gauzak asko atzeratu dira, eta hainbat lan urrats aspalditik eginda egon arren, lehen bilera teknikoa eta politikoa, lehen komunikazio ekintza... hasierako asmoei eutsi eta hemen jasotzen da lau urterako 2005-.2008 Zumaiako Plan Estrategikoa. Plana Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari jarraituz egin da, bere helburu nagusiari eta helburu espezifikoei jarraiki, hain zuzen ere.

- Helburu nagusia euskararen normalizazioa lortzea da. Herritarrak euskaraz bizitzeko dituzten aukerak gehitzea eta gizarteko arlo guztietan euskararen berreskurapen osoa lortzeko neurriak hartzea.

- Helburu espezifikoak:

- Euskara belaunez belaun eta etenik gabe ondorengoetaratztea.
- Euskararen erabilera suspertzea.
- Etengabe elikatzea, hizkuntza eroso eta erraz hitz egiteko eta erabiltzeko.

2.2.- EZAUGARRI NAGUSIAK:

Plan estrategikoaren epeei dagokienez, lau urterako plana diseinatu da. 2005ean hasi eta 2008an amaituko da.

Helburuei dagokienez, euskararen erabilera esparru guztietara hedatzea eta bermatzea izango da lehentasuna. Euskararen aldeko zerbitzugintzan ahalegina egingo da euskararen elikadurari eman beharreko garrantzia ere baztertu gabe.

Zumaian, orain arte ere, hainbat ekintza egin izan dira, euskara landu eta biziberritzeko. Baina, beti ere, koordinaziorik gabe eta jarraipen zehatzik eman gabe, hau da, sistematizatu gabe. Batzuetan gauzak, plan baten barruan ez egotearen ondorioz, anekdotan gelditu izan dira. Bada, plan honen helburu nagusia izango da orain arte egindako guztia sistematizatu eta kontsolidatzea. Agentekin elkarlana eta harremanak estutu eta sistematizatu eta gauzak planifikazio baten barruan egitea, dagokien jarraipena emanda.

Gainerakoan, egingarrietik abiatzea izango da irizpidea, alor bakoitzean helburu lorgarriak jartzea eta horiek lortu ahala goragoko helburuak jarriko dira. Irizpide horri jarraituko zaio Plan Estrategikoa diseinatzerakoan, bai eta urtez urteko kudeaketa planak zehazterakoan ere.

2.3.- EUSKARA ONDORENGOETARATZEA

2.3.1.- Irakaskuntza

NEURRIA:

Hizkuntza politikaren arloan garatutako ekimenen eraginik aldekoena hezkuntza arloan antzematen da, hain zuzen ere, EAEko eta Nafarroako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan. EAEn, irakaskuntza-sistemako B ereduaren eta bereziki D ereduaren onarpenari esker gertatu da euskararen areagotzea gazteenen artean.

Ekintzak:

- Irakaskuntza sisteman sartzear dauden haurren gurasoei zuzendutako komunikazio ekintza, haurrak oro har D ereduari sartuko direnez, gurasoak beraiek ere euskara ikasi edo hobetzeko ahalegina egin dezaten, eta oro har gurasoen euskararekiko motibazioa landu dadin.

NEURRIA:

Egitarau zehatzak eratu eskolaz eskola, irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietako harreman-hizkuntza ere izateko, bai eta euskararekiko atxikimendua eta euskaraz bizitzen lagunduko duten ohiturak bultzatzeko ere.

Ekintzak:

- Ikastetxeen errotulazioa era egokia jarrita dago, baina horren jarraipena egingo da.
- Irakur zaletasuna bultzatzeko orain arteko ekimenak garatzen jarraitzea eta berriak martxan jartzea, beharrezkoak diren baliabideak eskainita (irakurketa agendak, ipuin kontaketak, gurasoentzat ikastaroak..)
- “Euskara Zine Aretoetara” programan parte hartzen denez, horretan jarraituko da hemendik aurrera ere, beharrezkoak diren baliabide eta laguntzak eskainita.
- Eskola barruko eta kanpoko komunikazioan (inprimakiak, bilera aktak, zirkularra...) euskara erabiltzen da dagoeneko, horren jarraipena egingo da, eta beharrik ikusiko balitz laguntza eskainiko litzateke.
- Ikastetxeetako euskararen normalkuntza planak garatzen direla ziurtatu eta jarraipena egin.
- Ahozko adierazpena indartzeko ekintzak indartu eta horiek burutzeko laguntza ematea.

NEURRIA:

Eskolaz kanpoko erabilera-esparruekin (herria-auzoa-lagunartea-aisia) zubiak egiteko euskara batzordeak osatu.

Ekintza:

- Euskararen erabilera bultzatuko duen Euskararen Aholku Batzordean ikastetxeen presentzia bermatzea.

2.3.2.- Euskalduntze-alfabetatzea:

NEURRIA:

Euskalduntze alfabetatzeko ekintzabideak erabileraren ingurukoekin uztartu, eta arreta berezia jarri euskararen bizitasun etnolinguistikoa indartzeko ezinbestekoak diren gune geografikoetan, giza taldeetan eta gizarte eremuetan, horiei lehentasun osoa eskainiz, ahalik eta eperik laburrenean, hizketarako gai diren euskaldunak lortzeko. Horretara heltzeko, efektu biderkatzailea izan dezaketen giza taldeak identifikatu behar dira, helburu zehatzei erantzuteko ikastaroak antolatu eta hasierako mailatik bukaerarainoko ikasketa-prozesu osoa hitzartu gizarteko hainbat eragile eta talderekin.

Ekintza:

- Alfabetatze ikastaroak indartu eta jarduera esparruka identifikatutako taldeei eskaini.
- Kasuan kasuko eragile eta taldeak identifikatu jarduera esparruak eta horren arabera ikastaroen eskaintza bideratu.
- Baldintza minimo batzuk betetzearen truke dirulaguntzak eskaintzen jarraitu.
- Herritarren artean euskara ikastearen garrantziaz sentsibilizatze eta herrian euskara ikasteko dauden aukeren berri ematen jarraitu.
- Euskara ikasten ari direnak euskara erabiltzera motibatzea.

2.3.3.- Familia:

NEURRIA:

Euskararen familia bidezko jarraipenari ekiteko, bi gune nagusitan egin behar da indar: gazteengan, bikote-hizkuntza finkatzeari begira, eta familia osatu berriengan, haurren lehen hizkuntza ziurtatzeari begira. Horretarako, jarraipenean zuzeneko eragina (gurasoak, gurasogaiak, haurrak) nahiz zeharkakoa (haurtzaindegiak, zaindariak..) dutenak sentiberatzeko eta eskolaratzeko ekintzak behar dira; halaber, euskaraz egiteko zerbitzuak, guneak eta aukerak eskaini behar zaizkie, xede-talde bakoitzari mezu eta ekintza zehatzak proposatuz.

Neurriak:

- Derrigorrezko ez den ikastaldian (0-3 urte) euskarazko haurtzaindegiak edo haur eskolak eskaini.
- Familia euskaldunetan bai hurrekin eta bai elkarren artean ere erabilera sustatzeari begirako jarduerak.
- Euskara Batzordearen bidez hiru lau urterako programa taxutu.
- Ezkondu edo jaunartzea egin behar dutenen gonbidapenak edota oroimen-txartelak egiten dituen enpresei laguntza eskaini, euskararen erabilera egokia bermatzeko.

- Haur jaioberrien gurasoentzat euskararekiko sentiberatzeko egitasmoak garatzen jarraitu (bildumak; ipuinak, kantuak...
- Haurrentzako zerbitzuak kudeatzen dituztenekin hitzarmenak sinatu euskararen erabilera egokia bermatzeko.

2.4.- EUSKARAREN ERABILERA:

2.4.1.- Administrazioa:

NEURRIA:

Euskara administrazioaren zerbitzu hizkuntza izango dela bermatu, batik bat osasun-zerbitzuetan, herrizaingo-zerbitzuetan eta justizia administrazioan. Era berean, lan-hizkuntza ere izan dadin egitasmoak abian jarri. Estatuko administrazioeko erakundeetan eta, bereziki, Justiziakoetan ere euskararen erabilera sustatzeko plangintza zehatzak martxan jarri.

Ekintzak:

- Dirulaguntzak banatzeko deialdietan hizkuntza-irizpideak ezarri.
- Euskaraz lan egiteko langileak behar dituen baliabideak eskaini.
- Udalean Euskararen ERabilera Normalizatzeko plana taxutu, onartu eta garatu.
- Euskararen erabilera arautuko duten udal ordenantzak definitu eta kaleratu eta jarraipeneko sistema bat antolatu.
- Udalak egiten dituen kontratazio berrietan hizkuntza-irizpideak ezarri.
- Udalak egiten dituen zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri.
- Euskara zerbitzuaren eginkizunen arabera baliabideen beharrak neurtu.
- Agintariak ere programa hauetan inplikatu.
- Euskaldun ororengana iristeko komunikazio plana osatu eta horren betetze mailaren jarraipena egin.
- Udalak egiten dituen hornikuntza kontratuetan hizkuntza irizpideak ezarri.

NEURRIA:

Herri-administrazioetan, (bereziki udal eta eskualdeetan) euskararen erabilera normalizatzeko plangintzak gauzatu. Horretarako, euskara-zerbitzuak sendotu edo eratu eta hizkuntza normalizatzaileen prestakuntzaz arduratu.

Ekintzak:

- Euskara Zerbitzuaren betebeharren arabera, normalizatzailearen beharrak definitu, HPSrekin batera.
- Euskara Batzordea osatzea, herriko ikastetxe, euskaltegi eta elkarteekin batera.
- Euskara Zerbitzua sendotu, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin elkarlanean.

2.4.2.- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak

NEURRIA:

Informazio-kanpainak antolatu eta sentiberatze-lana egin informazio-produktuen eskaria gero eta handiagoa izan dadin herritarren (jolas eta informaziorako), enpresen (informazio, interpretazio eta itzulpenerako) eta sektore publikoaren aldetik (informazio, itzulpen, interpretazio eta dokumentaziorako).

Ekintzak:

- Euskara lantzeko tresnen zabalkundea egin herritarren artean.
- Udalak eta udalerriko elkarteek eta herritarrek interneten duten edo jartzekoa duten informazioa euskaraz ere egoteko laguntza teknikoa eta diruzkoa eskaini.
- Udal zentroetan teknologia berrietan oinarritutako euskarazko produktu eta zerbitzuak eskaini.
- "Paperik gabeko" informatizaziorako udalen ahaleginetan, zerbitzuak euskaraz eskuragarri jarri.

NEURRIAK:

Euskal kulturaren ondareari buruzko informazioa digitalizatu eta hedatu.

Ekintzak:

- Ondare kulturala bildu, ahal den neurrian digitalizatu eta zabandu: toponimia, kondaira, gertaerak, euskalkiari buruzko informazioa...

2.4.3.- Enpresa-mundua:

NEURRIA:

Enpresetan euskararen erabilera areagotzeko begira, hizkuntza-politika antolatu helburu horiek kontuan: merkataritza-ganbarak, enpresariak eta enpresari-elkarteak, elkargoak, sindikatuak, eta abar, hizkuntza-politika horretako partaide bihurtzea; lantokietan euskararen aldeko proiektuak ezartzeko markoa definitzea eta giza baliabideak nahiz ekonomikoak bideratzea; lantokien tipologiaren arabera proiektuak diseinatzea eta gauzatzea.

Ekintzak:

- Arloko elkarteekin harremanetan jarri eta euskararen inguruko proposamen orokor bat egin.
- Lehen hitza euskaraz izan dadila lagundu.
- Eraginkorrak diren establezimenduak identifikatu eta mikroplangintzak egin.
- Enpresetan barne eta kanpo plangintzak egiteko laguntza eskaini.
- Bertako enpresekiko harremanetan euskara lehenetsi (tramite administratiboak, zirkularrak, gutunak..)
- Merkataritza eta Ostalaritza euskalduntzeko saioak abian jarri

NEURRIA:

Kanpaina erraldoiak antolatu beharrean, banan-banako sentiberatze-jardunak egin industriaz, merkataritzaz, lanaz eta lanbide-heziketaz arduratzen diren sailekin; enpresei zerbitzu emateko dauden enpresa publikoekin; enpresari, merkatarari eta profesionalen elkargoekin, eta udalerrri euskaldunetako enpresariekin, enpresa-munduko eragileen partehartzea lortzeko.

Ekintzak:

- Eragile nagusien partaidetza lortzeko banan-banako sentiberatze jardunak egin.

2.4.4.- Aisia:**NEURRIA:**

Aisialdian lanean diharduten talde indartsuekin (parrokian, eskautak eta abar) zein aisialdirako begirale eta zuzendarien prestakuntzan ari diren eskolekin (Hezibide, Edex...) plangintza zehatza egin, begiraleen hizkuntza-trebakuntza antolatzeko eta aisialdiko ekintzetan euskararen erabilera areagotzeko neurri zehatzak eta egokiak har ditzaten uneoro.

Ekintzak:

- Udaleko aisialdi ekintzak modu koordinatuan garatu.
- Euskaraz dakiten aisialdirako begiraleen lan poltsa osatu.

NEURRIA:

Euskararen aldeko ekintza soilen ordez, inguru hezitzailean eskaini aisialdi-zerbitzuak: herria, nortasuna, herri-kidetasuna, kondaira eta hizkuntza elkartuz, alegia.

Ekintzak:

- Tailer-ikastaroak euskaraz antolatzen jarraitu.
- Hitzaldiak eta emanaldiak euskaraz antolatzen jarraitu.
- Udalaren menpeko aisialdi eta kultur guneetan (ludoteka, gaztetxola, kultur etxeak..) antolatzen diren ekintzetan euskarazko saioak bermatzen jarraitu.
- Euskal kultura eta tradizioari lotutako ekintzak bultzatzen jarraitu.
- Udan euskaraz antolatzen diren ekintzak indartu.

2.4.5.- Kirola:**NEURRIA:**

Hiruzpalau urteko plan estrategiko batean kirol-arloa euskalduntzeko hiru lan-esparru nagusi taxutu: materialaren sorkuntza eta hedapena; entrenatzaileentzako titulu ofizial eta ez ofizialak lortzeko ikastaroak; sentsibilizazio eta zabalkunde orokorra zein herri mailakoa.

Ekintzak:

- Udaleko kirol ekintzak modu koordinatuan garatu.

- Kirol taldeek erabiltzen duten materiala euskaraz izateko laguntzak bideratzea eta material horiek kirol-klub eta elkarteetara helaraztea.
- Kirolean ere euskararen erabilera areagotzeko sentsibilizazio ekintza zehatzak egin.

NEURRIA:

Udal-kiroldegietako langileak edo enpresa-zerbitzuak kontratatzerakoan hizkuntza-irizpideak ezarri. Udalen et ekimen pribatuaren esku dagoen “Denontzako kirola” programan euskarazko eskaintza bermatu. Federazioen laguntzaz euskararen erabilera areagotu jendaurreko kirol-agerpenetan: iragarki, megafonia, errotulazio eta argitalpenetan.

Ekintzak:

- Kirol taldeei zuzendutako dirulaguntzetarako deialdietan hizkuntza-irizpideak ezarri.
- Jendaurreko kirol-jardueretan euskararen presentzia bermatzeko hizkuntza-irizpideak ezartzen jarraitu.
- Euskarazko taldeak osatu daitezzen ikastetxe eta kirol taldeekin elkarlanean aritu.

2.4.6.- Erljioa:

NEURRIA:

Euskarari buruzkoetan, ahalik eta bateratsuen jokatzeari eskatu elizbarrutiei.

Ekintzak:

- Katekesia euskaraz eskaini.

.5.- EUSKARAREN ELIKADURA

2.5.1.- Corpus plangintza:

NEURRIA:

Hizkuntza-paisaia ugaltu eta txukundu eta berbazko euskal kultur produkzioak ere landu.

Ekintzak:

- Merkatal gunetako hizkuntza-paisaia (denda, taberna, akademiak eta abarrekoetakoan) euskaren presentzia txukundu eta areagotu.
- Toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisaia normalizatu Euskaltzaindiarekin bat etorritik.
- Hizkuntza ondarea gordetzeko eta zabaltzeko ekintzetarako laguntza eskaini.
- Kasuan kasuko euskalkiaren azterketa linguistikoa egiteko laguntzak eskaini Euskaltzaindiaren arauak eta metodologia betez.

2.5.2.- Liburugintza:

NEURRIA:

Datozen urteotan orain arte baino arreta handiagoa jarri erosle eta irakurleengan, irakurzaletasuna bultzatuz, marketina antolatuz, merkatua zabalduz, EITBren, eskolen, liburudenden, liburutegien eta liburu-azoken bidez.

Ekintzak:

- Udal liburutegiak era egokian hornitu, ezagutzera eman eta euskal materialen erabilera sustatu bertan.
- Eragin esparruko ikastetxeekin batera euskal literaturaren zaletasuna bultzatzeko ekitaldiak antolatu.

NEURRIA:

Irakur zaletasuna sustatzeko hitzarmenak egin Administrazioaren, Euskal Editoreen, Euskal Idazleen eta Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien elkarteen artean.

Ekintzak:

- Euskal literaturaren inguruko elkarteekin (idazleak, editoreak, itzultzaileak, bertsolariak) harremanetan jarri eta urteko programa definitu.

2.5.3.- Publizitatea:

NEURRIA:

Herri-erakundeek euskarazko publizitatearen alde jarri, publizitate-prozesuko eragileen ondoan. Areago, euskarazko komunikabideak gizartearen begietarako edertzeko lana ere egin beharko lukete.

Ekintza:

- Herritarrek edo enpresek publizitatea euskaraz egiteko laguntza teknikoa eman.

2.5.4.- Kulturgintza:

NEURRIA:

Kulturgintza: Haurri eta gazteei zuzendutako kultur ekoizpenak lehenetsi, euskara biziberritzeko duten garrantziagatik.

Ekintzak:

- Udalaren menpeko kultur guneetan euskarazko materialak eguneratuta izatea eta herritarren eskueran ipintzea.
- Euskaltegi, ikastetxe eta herriko elkarteekin batera ekintzak antolatu.

NEURRIA:

kulturgintza: Lan-baldintzak hobetzen, sortzaileen lanabesak egokitzen, beren lanaren oihartzuna ozentzen eta euskararen eta euskal kulturaren erabilera bultzatzen lagundu Kultura Sailak.

Ekintzak:

- Euskarazko kultur plangintza diseinatu, aldizkotasuna bermatzeari begira.

- Herriko festetan eta kultur ekitaldi nagusietan euskararen presentzia bermatu.
- Udaletako azpiegiturak euskal kulturgintzan dabilzan taldeen esku jarri.
- Euskal kultur produkzioa zabaltzea eta ezagutaraztea.
- Herrian dauden kultur talde desberdinak eta hauen lana ezagutarazi.

2.5.5.- Hedabideak:

NEURRIA:

komunikabideen garrantzia gero eta handiagoa denez, euskarazko komunikabideak hizkuntza-normalizazioaren arlo estrategikotzat jo behar ditu administrazioak, baita euskarazko prentsak horretan zer paper jokatu behar duen erabaki ere, eta horren arabera laguntzak eskaini.

Ekintzak:

- Komunikabideak euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtu, bai eta Euskara Biziberritzeko Planen nondik norakoaren partaide ere.

NEURRIA:

Jokaera enpresarial egokiaren aldeko apustua egin behar du prentsak. Produktu desberdinak eta merkatuan lehiatzeko modukoak eskaintzea ezinbestekoa du. Horretarako, besteak beste, inbertsioak egin behar dira azpiegituran. Gobernuak sektore ekonomiko bat dela onartu eta enpresa-trataera eman behar dio.

Ekintzak:

- Eskualde edo herri-mailako euskarazko komunikabideei laguntzak emateko irizpideak finkatu eta horren arabera dirulaguntzak esleitzen jarraitu.

Aurrekontua 17000 euro(Euskarako diru sailetik)

NEURRIA:

Euskarazko prentsak elkarlana bultzatu, baliabideei ahalik eta etekinik handiena atera, kalitatea hobetu eta produktu berriak eskaini behar ditu.

Ekintzak:

- * Haur eta gazteentzako euskarazko eskaintza sustatzea.

2.6.- BALIABIDEAK

2.6.1.- Diru baliabideak:

Zumaiako Udalaren euskarako aurrekontua 2004. urterako 120.315,00 eurokoa da. Hainbat partidatan banatua dago eta honela xehetu liteke gutxi gorabehera:

1.- Zumaiako euskara aztertu eta jasotzeko beka eta lan horren emaitza biltzeko liburua argitaratzeko	28.905€
2.- Herriko toponimia jasotzeko beka	12.000€
3.- Julene Azpeitia literatur sarirako	10.000€

4.- Herri komunikabideak diruz laguntzeko	09.950€
5.- Euskara ikasteko diru laguntzak	07.000€
6.- Euskararen aldeko entitate eta elkarteei dirulaguntzak	12.905€
6.- Mankomunitatearen bitartez, enpresak eta kirola euskaldundu eta euskara sustatzeko beste jarduera batzuetarako	19.460€
7.- Euskararen Normalkuntza Plana garatzeko	21.000€
8.-Euskararekin lotutako bestelako gastuetarako	16.000€

2.6.2.- Giza baliabideak:

Oraintsu arte, itzultzaile bat egon da eta udaleko funtzionarioa izan da azken 20 bat urteotan. Gero udalak beste lagun bat kontratatu du, euskara teknikari lanpostua betetzeko, eta batez ere, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia abian jartzeko Zumaian. Gaur egun euskara teknikariak osatzen du euskara zerbitzu osoa, itzultzaileak erretiroa hartu zuelako. Teknikaria, beraz, euskara biziberritzearekin zerikusia duten gauza guztiekin arduratzen da eta horrezaz gain, itzulpen lanak ere egiten ditu hala dagokionean.

Bestelakoan, euskara teknikariak Euskara Batzordean eta Hezkuntza Batzordean hartzen du parte. Izan ere, Hezkuntza Batzordetik hurrekin lotutako hainbat eta hainbat ekintza bideratzen dira, era berean, euskararekin ere zerikusia dutenak; ahozkotasuna lantzeko ekimenak.....

3.- ZUMAIAKO KUDEAKETA PLANA 2005

3.1.- SARRERA:

Lau urterako Plan Estrategikoa finkatuta dagoelarik, 2005. urterako kudeaketa plana definitu behar da. Urte erabakigarria izango da 2005.ena orain arte burutu izan diren ekintza solteei, benetako jarraipena eta sistematizazioa emateko, eta hala gertatuko ez balitz, zergatiak eta hutsuneak aztertzeke. Hori horrela izanik, beste behin ere irizpide nagusiak bi izan dira, lehendik egiten zena finkatzera jotzea eta urratzeko diren bide berrietan, beti bezala, ekintza lorgarrietan zentratzea. Izan ere, Plan honek ez du inolaz ere motz geratu nahi, baina, beste ezer baino nahiago du errealista izan. Beraz, ildo horretatik berrikuntzarik nagusiena merkataritza plan oso bat bideratzea izango da. Eta gainerakoan, esan bezala, lehendik datorrenari modu sendoan eustea.

3.2.- EUSKARA ONDORENGOETARATZEA:

3.2.1.- Irakaskuntza

NEURRIA:

Hizkuntza politikaren arloan garatutako ekimenen eraginik aldekoena hezkuntza arloan antzematen da, hain zuzen ere, EAEko eta Nafarroako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan. EAEn, irakaskuntza-sistemako B ereduaren eta bereziki D ereduaren onarpenari esker gertatu da euskararen areagotzea gazteenen artean.

Ekintzak:

- Irakaskuntza sisteman sartzear dauden haurren gurasoei zuzendutako komunikazio ekintza, haurrak oro har D ereduan sartuko direnez, gurasoak beraiek ere euskara ikasi edo hobetzeko ahalegina egin dezaten, eta oro har gurasoen euskararekiko motibazioa landu dadin. Haur Hezkuntza ematen duten Zumaiako bi ikastetxeetan hitzaldi bana; haurren inguruan euskararen presentzia ziurtatzeko aholkuak emanez, euskararen ikasketa prozesua arrakastaz burutzeko baldintzak zein diren zehaztuaz eta abar.

Aurrekontua 1.200 euro (Hezkuntzako diru sailetik)

NEURRIA:

Egitarau zehatzak eratu eskolaz eskola, irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietako harreman-hizkuntza ere izateko, bai eta euskararekiko atxikimendua eta euskaraz bizitzen lagunduko duten ohiturak bultzatzeko ere.

Ekintzak:

- Ikastetxeen errotulazioa era egokia jarrita dagoela ziurtatzea, horren jarraipena egitea, errotuloren bat aldatzeko premiarik balego aldatzea.

Aurrekontua 300 euro (Hezkuntzako diru sailetik)

- Irakur zaletasuna bultzatzeko orain arteko ekimenak garatzen jarraitzea eta berriak martxan jartzea, beharrezkoak diren baliabideak eskainita (irakurketa agendak, ipuin kontaketak, gurasoentzat ikastaroak..). Hitzaldiak ikastetxe bakoitzean
Aurrekontua 1.000 euro (Hezkuntzako diru sailetik)
- “Euskara Zine Aretoetara” programan parte hartzen denez, horretan jarraituko da hemendik aurrera ere, beharrezkoak diren baliabide eta diru laguntzak eskainita.
Aurrekontua 1.600 euro (Hezkuntzako diru sailetik)
- Ahozko adierazpena indartzeko ekintzak indartu eta horiek burutzeko laguntza ematea. Bertsolaritza lantzeko programa eta Zumaiako hitanoaren inguruko unitate didaktikoa, besteak beste.
Aurrekontua 3.400 euro (Hezkuntzako diru sailetik)

NEURRIA:

Eskolaz kanpoko erabilera-esparruekin (herria-auzoa-lagunartea-aisia) zubiak egiteko euskara batzordeak osatu.

Ekintza:

- Euskararen erabilera bultzatuko duen Euskararen Aholku Batzordean herriko ikastetxe guztien presentzia bermatuko da.

3.2.2.- Euskalduntze-alfabetatzea:

NEURRIA:

Euskalduntze alfabetatzeko ekintzabideak erabileraren ingurukoekin uztartu, eta arreta berezia jarri euskararen bizitasun etnolinguistikoa indartzeko ezinbestekoak diren gune geografikoetan, giza taldeetan eta gizarte eremuetan, horiei lehentasun osoa eskainiz, ahalik eta eperik laburrenean, hizketarako gai diren euskaldunak lortzeko. Horretara heltzeko, efektu biderkatzailea izan dezaketen giza taldeak identifikatu behar dira, helburu zehatzei erantzuteko ikastaroak antolatu eta hasierako mailatik bukaerarainoko ikasketa-prozesu osoa hitzartu gizarteko hainbat eragile eta talderekin.

Ekintzak:

- Kasuan kasuko eragile eta taldeak identifikatzen jarraitu, umeak eskolako adinean dituzten gurasoak esaterako, eta beraientzako ikastaroen eskaintza bideratu.
Aurrekontua 1.000 euro (Hezkuntzako diru sailetik)
- Baldintza minimo batzuk betetzearen truke dirulaguntzak eskaintzen jarraitu, orain arte bezala, Zumaiako erroldatuta daudenei eta asistentzia baldintza betetzen dutenei matrikula gastuen %75eko diru laguntza emanda.
Aurrekontua 8.200 euro (Euskarako diru sailetik)

- Herritarren artean euskara ikastearen garrantziaz sentsibilizatze eta herrian euskara ikasteko dauden aukeren berri emateko hainbat kanpaina egitea, ikasturte hasieran, ikastaro bereziak daudenean...
Aurrekontua 1.000 euro (Euskara+Hezkuntzako diru sailetatik)

3.2.3.- Familia:

NEURRIA:

Euskararen familia bidezko jarraipenari ekiteko, bi gune nagusitan egin behar da indar: gazteengan, bikote-hizkuntza finkatzeari begira, eta familia osatu berriengan, haurren lehen hizkuntza ziurtatzeari begira. Horretarako, jarraipenean zuzeneko eragina (gurasoak, gurasogaiak, haurrak) nahiz zeharkakoa (hautzaindegiak, zaindariak..) dutenak sentiberatzeko eta eskolaratzeko ekintzak behar dira; halaber, euskaraz egiteko zerbitzuak, guneak eta aukerak eskaini behar zaizkie, xede-talde bakoitzari mezu eta ekintza zehatzak proposatuz.

Ekintzak:

- Derrigorrezko ez den ikastaldian (0-3 urte) euskarazko haur eskolak eskaini 2004-2005 ikasturtetik aurrera.
Aurrekontua 3.000 euro (Hezkuntzako diru sailetik)
- Familia euskaldunetan bai hurrekin eta bai elkarren artean ere erabilera sustatzeari buruzko jarduerak burutzea, elkarrekin egiteko jolasen inguruko ikastaroak...
Aurrekontua 1.500 euro (Hezkuntzako diru sailetik)
- Haur jaioberrien gurasoentzat euskararekiko sentiberatzeko egitasmoak (bildumak; ipuinak, kantuek...garatzen jarraitu).
Aurrekontua 200 euro (Euskarako diru sailetik)

3.3.- EUSKARAREN ERABILERA:

3.3.1.- Administrazioa:

NEURRIA:

Euskara administrazioaren zerbitzu hizkuntza izango dela bermatu, batik bat osasun-zerbitzuetan, herrizaingo-zerbitzuetan eta justizia administrazioan. Era berean, lan-hizkuntza ere izan dadin egitasmoak abian jarri. Estatuko administrazioako erakundeetan eta, bereziki, Justiziakoetan ere euskararen erabilera sustatzeko plangintza zehatzak martxan jarri.

Ekintzak:

- Dirulaguntzak banatzeko deialdietan hizkuntza-irizpideak ezarri; herriko hainbat elkarteri ematen zaien diru laguntzetan esaterako.

- Euskaraz lan egiteko langileak behar dituen baliabideak eskaini, “iturri onetik” ikastaroak, besteak beste.
Aurrekontua 2.000 euro (Euskara diru sailetik)
- Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko plana taxutu, eta garatzen hasia.
Aurrekontua 1.2000 euro (Euskara diru sailetik)
- Euskararen erabilera arautuko duten udal ordenantzak definitu eta kaleratu eta jarraipeneko sistema bat antolatu.
- Udalak egiten dituen langileen kontratazio berrietan hizkuntza irizpideak ezarri.
- Euskaldun ororengana iristeko komunikazio plana osatu eta horren betetze mailaren jarraipena egin.
Aurrekontua 1.000 euro (Euskara diru sailetik)

NEURRIA:

Herri-administrazioetan, (bereziki udal eta eskualdeetan) euskararen erabilera normalizatzeko plangintzak gauzatu. Horretarako, euskara-zerbitzuak sendotu edo eratu eta hizkuntza normalizatzailen prestakuntzaz arduratu.

Ekintzak:

- Euskara Batzordea osatzea, herriko ikastetxe, euskaltegi eta elkarteekin batera.

3.3.2.- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak

NEURRIA:

Informazio-kanpainak antolatu eta sentiberatze-lana egin informazio-produktuen eskaria gero eta handiagoa izan dadin herritarren (jolas eta informaziorako), enpresen (informazio, interpretazio eta itzulpenarako) eta sektore publikoaren aldetik (informazio, itzulpen, interpretazio eta dokumentaziorako).

Ekintzak:

- Euskara lantzeko tresnen zabalkundea egin herritarren artean, besteak beste, on-line euskaltegia abian jarrita Udal Elkartearen bitartez
Aurrekontua 4.000 euro (Euskarako diru sailetik)
- “Paperik gabeko” informatizaziorako udalen ahaleginetan, zerbitzuak euskaraz eskuragarri jartzen jarraitzea udalaren web orriaren bitartez nagusiki.

NEURRIAK:

Euskal kulturaren ondareari buruzko informazioa digitalizatu eta hedatu.

Ekintzak:

- Ondare kulturala biltzen jarraitu eta ahal den neurrian digitalizatu eta zabaldu; herriko toponimia biltzeko lana....
Aurrekontua 7.500 euro (Euskarako diru sailetik).

3.3.3.- Enpresa-mundua:**NEURRIA:**

Enpresetan euskararen erabilera areagotzekoari begira, hizkuntza-politika antolatu helburu horiek kontuan: merkataritza-ganbarak, enpresariak eta enpresari-elkarteak, elkargoak, sindikatuak, eta abar, hizkuntza-politika horretako partaide bihurtzea; lantokietan euskararen aldeko proiektuak ezartzeko markoa definitzea eta giza baliabideak nahiz ekonomikoak bideratzea; lantokien tipologiaren arabera proiektuak diseinatzea eta gauzatzea.

Ekintzak:

- Bertako enpresekiko harremanetan euskara lehenetsi (tramite administratiboak, zirkularrak, gutunak..)
- Merkataritza eta Ostalaritza euskalduntzeko plan oso eta sakon bat abian jartzea.
Aurrekontua 30.000 euro (Euskarako diru sailetik)

3.3.4.- Aisia:**NEURRIA:**

Aisialdian lanean diharduten talde indartsuekin (parrokian, eskautak eta abar) zein aisialdirako begirale eta zuzendarien prestakuntzan ari diren eskolekin (Hezibide, Edex...) plangintza zehatza egin, begiraleen hizkuntza-trebakuntza antolatzeko eta aisialdiko ekintzetan euskararen erabilera areagotzeko neurri zehatzak eta egokiak har ditzaten uneoro.

Ekintzak:

- Udaleko aisialdi ekintzak modu koordinatuan garatu, horrela euskara saila kultura sailetik egiten den guztiaren jakitun egon dadin, besteak beste.
- Euskaraz dakiten aisialdirako begiraleen lan poltsa osatu. Orain arte herri nahiz eskualde mailan egin izan diren begirale ikastaroetatik ateratakoen izenak zerrendan jaso eta udaleku irekiak zein beste jarduerak batzuk egiterakoan erabili.

NEURRIA:

Euskararen aldeko ekintza soilen ordez, inguru hezitzailean eskaini aisialdi-zerbitzuak: herria, nortasuna, herri-kidetasuna, kondaira eta hizkuntza elkartuz, alegia.

Ekintzak:

- Tailer-ikastaroak euskaraz antolatzen jarraitu, besteak beste, sabel dantza, perkusioa, pintura....
Aurrekontua 3.600 euro (Kulturako diru sailetik)
- Hitzaldiak eta emanaldiak euskaraz antolatu, ipuin kontaketak, euskarazko hitzaldiak...
Aurrekontua 1.200 euro (Kulturako diru sailetik)
- Udalaren menpeko aisialdi eta kultur guneetan (ludoteka, gaztetxola...) antolatzen diren ekintzetan euskarazko saioak bermatzen jarraitu
Aurrekontua 9.000 euro (Hezkuntzako diru sailetik).
- Udan euskaraz antolatzen diren ekintzak indartu, besteak beste, kale antzerkiak, umeentzako udaleku irekiak...
Aurrekontua 35.000 euro (Hezkuntza+Kulturako diru sailetatik)
- Irteerak euskaraz antolatzen jarraitu, hirietara, erakusketa jauregietara....
Aurrekontua 7.000 euro (Kulturako diru sailetik)
- Euskal kultura eta tradizioari lotutako ekintzak bultzatu, besteak beste, euskal jaia, bertso saioak...
Aurrekontua 17.500 euro (Kulturako diru sailetik).

3.3.5.- Kirola:

NEURRIA:

Hiruzpalau urteko plan estrategiko batean kirol-arloa euskalduntzeko hiru lan-esparru nagusi taxutu: materialaren sorkuntza eta hedapena; entrenatzaileentzako titulu ofizial eta ez ofizialak lortzeko ikastaroak; sentsibilizazio eta zabalkunde orokorra zein herri mailakoa.

Ekintzak:

- Udaleko kirol ekintzak modu koordinatuan garatu, udaleko sail ezberdinek egiten denaren berri izan dezaten eta beste helburu batzuekin bateragarriak diren neurrian hala egin daitezen.
- Kirol taldeek erabiltzen duten materiala euskaraz izateko laguntzak bideratzea eta material horiek kirol-klub eta elkarteetara helaraztea, Udal Elkartearen kirola euskaraz programaren bidez, batez ere.
Aurrekontua 4.500 euro (Euskarako diru sailetik)
- Kirolean ere euskararen erabilera areagotzeko sentsibilizazio ekintza zehatzak egin, besteak beste, herriko kirol elkarte guztiak bilduko dituen euskararen aldeko jaialdia.

Aurrekontua 12.000 euro (Euskara+Kirola diru sailetatik)

NEURRIA:

Udal-kiroldegietako langileak edo enpresa-zerbitzuak kontratatzerakoan hizkuntza-irizpideak ezarri. Udalen et ekimen pribatuaren esku dagoen “Denontzako kirola” programan euskarazko eskaintza bermatu. Federazioen laguntzaz euskararen erabilera areagotu jendaurreko kirol-agerpenetan: iragarki, megafonia, errotulazio eta argitalpenetan.

Ekintzak:

- Kirol taldeei zuzendutako dirulaguntzetarako deialdietan hizkuntza-irizpideak ezarri, bakoitza bere mailan konpromisoak hartzen joan dadin.
- Jendaurreko kirol-jardueretan euskararen presentzia bermatzeko hizkuntza-irizpideak ezartzen jarraitu.

3.4.- EUSKARAREN ELIKADURA

3.4.1.- Corpus plangintza:

NEURRIA:

Hizkuntza-paisaia ugaltu eta txukundu eta berbazko euskal kultur produkzioak ere landu.

Ekintzak:

- Merkatal gunetako hizkuntza-paisaian (denda, taberna, akademiak eta abarrekoetakoan) euskaren presentzia areagotzeko laguntzak ematen jarraitu.

Aurrekontua 3.000 euro (Euskarako diru sailetik)

3.4.2.- Liburugintza:

NEURRIA:

Datozen urteotan orain arte baino arreta handiagoa jarri erosle eta irakurleengan, irakur zaletasuna bultzatuz, marketinga antolatuz, merkatua zabalduz, EITBren, eskolen, liburu denden, liburutegien eta liburu-azoken bidez.

Ekintzak:

- Udal liburutegiak era egokian hornitu, ezagutzera eman eta euskal materialen erabilera sustatu bertan.

Aurrekontua 6.100 euro (Kultura diru sailetik)

NEURRIA:

Irakur zaletasuna sustatzeko hitzarmenak egin Administrazioaren, Euskal Editoreen, Euskal Idazleen eta Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien elkarteen artean.

Ekintzak:

- Euskal literaturaren inguruko elkarteekin (idazleak, editoreak, itzultzaileak, bertsolariak) harremanetan jarri eta urteko programa definitzen jarraitu; literatur tailerrak, poesia emanaldiak....
Aurrekontua 800 euro (Euskarako diru sailetik)

3.4.3.- Publizitatea:**NEURRIA:**

Herri-erakundeek euskarazko publizitatearen alde jarri, publizitate-prozesuko eragileen ondoan. Areago, euskarazko komunikabideak gizartearen begietarako edertzeko lana ere egin beharko lukete.

Ekintza:

- Herritarrek edo enpresek publizitatea euskaraz egiteko laguntza teknikoa eman, itzulpenak egin, aholkularitza linguistikoa.....

3.4.4.- Kulturgintza:**NEURRIA:**

Kulturgintza: Haurri eta gazteei zuzendutako kultur ekoizpenak lehenetsi, euskara biziberritzeko duten garrantziagatik.

Ekintzak:

- Udalaren menpeko kultur guneetan euskarazko materialak eguneratuta izatea eta herritarren eskueran ipintzen jarraitzea.
Aurrekontua 800euro (Euskarako diru sailetik)

NEURRIA:

kulturgintza: Lan-baldintzak hobetzen, sortzaileen lanabesak egokitzen, beren lanaren oihartzuna ozentzen eta euskararen eta euskal kulturaren erabilera bultzatzen lagundu Kultura Sailak.

Ekintzak:

- Euskarazko kultur plangintza diseinatzen jarraitzea eta aldizkotasuna bermatzen jarraitzea.
- Herriko festetan eta kultur ekitaldi nagusietan euskararen presentzia bermatzen jarraitzea, hau da, orain arte bezala, ia dena euskaraz egiten jarraitzea.
- Udaletako azpiegiturak euskal kulturgintzan dabilzan taldeen esku jartzen jarraitzea, bilgune erakustoki eta abarrak eskura izan ditzaten.
- Euskal kultur produkzioa zabaltzen eta ezagutarazten jarraitzea, orain arte bezala hainbat ekitaldi antolatzen jarraituta; antzerkiak.....
Aurrekontua 12.000 euro (Kulturako diru sailetik)

- Herrian dauden kultur talde desberdinak eta hauen lana ezagutarazten jarraitzea, beraien lana eta produkzioa ardatz duten ekitaldiak antolatzen jarraituta; pintura erakusketak, aste mikologikoa....
Aurrekontua 4.800 euro (Kulturako diru sailetik)

3.4.5.- Hedabideak:

NEURRIA:

komunikabideen garrantzia gero eta handiagoa denez, euskarazko komunikabideak hizkuntza-normalizazioaren arlo estrategikotzat jo behar ditu administrazioak, baita euskarazko prentsak horretan zer paper jokatu behar duen erabaki ere, eta horren arabera laguntzak eskaini.

Ekintzak:

- Komunikabideak euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtzea.
Aurrekontua 1.000 euro (Euskarako diru sailetik)

NEURRIA:

Jokaera enpresarial egokiaren aldeko apustua egin behar du prentsak. Produktu desberdinak eta merkatuan lehiatzeko modukoak eskaintzea ezinbestekoa du. Horretarako, besteak beste, inbertsioak egin behar dira azpiegituran. Gobernuak sektore ekonomiko bat dela onartu eta enpresa-trataera eman behar dio.

Ekintzak:

- Eskualde edo herri-mailako euskarazko komunikabideei laguntzak emateko irizpideak finkatu eta horren arabera dirulaguntzak esleitzen jarraitu.
Aurrekontua 16.000 euro (Euskarako diru sailetik)